

Bilbon, mila bederatzireun eta berrogeita amaikagarren urteko Jorrailaren ogeitazortzian, Bilboko Endore jaunak maiteki eskifiriko Udaletseko batzar gela nagosian eta iragarrita dagoanez ospatzen da Joane Gorostiaga Euskaltzain barriaren sarrera:

Maipuru Azkue Euskaltzainburu jauna. Beronegaz dagoz, Gorostiaga sargeiari laguntzen, Etxegarai, Etxaide, Irigaray, Krutwig ta Oleaga Euskaltzainak, eta Mantero-la, Arrutza, Garro ta Villasante urgazleak.

Oste aundi-aundia oso-bikaina da ikusle ta entzule.

Araudiak agintzen dauanez, araudi-otoitza Maipuruak egin eta gero, Zadorlariak labur-laburto azaltzen dau batzarraren gaia.

Urrengo Gorostiaga Euskaltzain barriak bere sarrera itzaldi ederra dirakur. Beronen gaia "Bizkaiko edestia toki-izenen bidez" da. Poz-pozik entzuna izan da ta txalo sutsu ta ugariz saritua.

Oleaga Zadorlariak darantzutso. Euskera-jakituria gauza aundi ta garrantzizkoa dala, baña, euskeraz ekitea ta euskerea jagotea ta zabaltzea be ezkala gauza txikia ta esesgarria, ta ardura osoz artu bear litzatekela diño. Oneri be txalo asko egin dautse batzarkideak.

Lekuona Euskaltzainak, J. Jud eta Larrasketa Urgazleak, Gortari Iruñako Endoreak, Bilbon Frantziko ordezkariak eta beste batzuk bidalduko agurrak ta ezin etorriak adierazoten dira.

Eta azkenez Euskaltzain barriari bere kisaren ezaugarria emonik eta zorionak eta eskumuñak agerturik, amaitu da batzarra.

*Euskaltzainburua*  
Resurreccion M.<sup>a</sup> Azkue

*Zadorlaria*  
Nazario Oleaga